

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Bizkaiko Etxe Merkeak



BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIAK UTZIA



INIGO AZKONA

Billboko Torre Urizar etxe multzoa eraiki berritan (ezkerrean) eta gaur egun (eskuinean). Etxeok Ricardo Bastida arkitektoak diseinatu zituen 1919an. U itxurako blokeak eginez, berdegune zabalez hornitu zuten auzunea, langileen baldintzak hobetzeko.

MADRIL, 1911. Espainiako gobernuak Etxe Merkeen Legea jarri zuen martxan, industriagune nagusietan bildutako langileen etxebizitza baldintza kaxkarrak hobetzeko asmoz eta XIX. mendearan amaieran Britainia Handian nahiz Frantzian sortutako legeak eredutzat hartuz (funtsean, kopiauz).

Penintsulako eskualde industrializatuenetakoa izanda, langileentzako etxe merke eta duinen premia handia zen Bizkaian, Bilbo inguruan. Higiene arazoak, pandemiak, zerbitzu gabezia eta toki falta ziren nagusi. Gainera, lurralde malkartsu horretan orube lauak industriak hartzen zituen eta horrek etxebizitzaren arazoa areagotzen zuen. Ondorioz, gatazka sozialak sortu ziren eta, esaterako, 1890eko meatzarien greban, eskakizunetako bat etxebizitza baldintzak hobetzea izan zen.

Langileek etxeak nahi zituzten, burgesiak ez zuen gatazkarik nahi eta, horrenbestez, Bizkaiko erakundeak eta enpresa pribatu nagusiak ez ziren Madrildik legea noiz etorriko zain geratu. Hala, 1909an La Kruz auzoko blokeak eraikitzeko lanak

diruz lagundu zituzten. Hileko hamabi pezetako errentaren truke, langileek bestela inolaz ere ordaindu ezin zuten etxea zeukaten: bizpahiru gela, iturriko ura, dutxa, komuna, sua egiteko txapa....

Legearekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiak ekimen horiek sustatzea erabaki zuen, orduko Caja de Ahorros Vizcaínak bere gain hartu zituen eraikinen finantziazioa eta langile familien aurrezkien kudeaketa, kooperatibak sortu ziren eraikuntza lanetarako eta garaiko arkitekto ospetsuenek estilo neoeuskalduneko nahiz ingelesko etxeak eta barrakoi lauak diseinatu zituzten.

Bizkaia, bere etxe merkeen irudia 1911-1936 liburuan bildu du Ana Julia Gomez arte historialariak etxeon historia eta izen bereko erakusketa ere ikusgai dago otsailaren 26ra arte Bizkaiko Foru Liburutegian.

Gerra piztu bitartean, orotara 57 etxe merke multzo eraiki zituzten hamabi udalerritan. Eta merkeak izateaz gain, kalitatezkoak ere izango ziren, sei izan ezik beste guztiak zutik baitaude gaur egun.

Arrastoak

Ampereak Internetera iritsi dira

ANDRÉ MARIE AMPÈRE (1775-1836) ikerlari frantziarrak (argazkian, Lyonen dagoen haren estatua), ilustratua izanik, matematikak, optika, mekanika, kimika eta ezagutzaren filosofia jorratu zituen, korronte elektrikoaren intentsitatea neurtzeko unitateari izena

emateaz gain. Berriki, *Ampère et l'histoire de l'électricité* webgunean ikerlariaren lan argitaratuak, eskuizkribuak eta garaiko beste zientzialari batzuekin trukaturako gutunak bildu ditu Frantziako Zientzia Ikerketarako Zentroak (www.ampere.cnrs.fr).



WWW.FR.ACADEMIC.RU